

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Konteiluaren 3/2017 Foru Dekretua, otsailaren 14koa, aldatzen dituen sozietateen gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiak

Foru dekretu honek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzen du harpidetza eskubideak eskualdatuta ondare irabazia lortzen denean atxikipena eta konturako sarrera egin beharra gertatzen den kasu berria sartzeko.

Horrez gainera, aldaketa bat sartzen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioaren emaitzako kopurua zatitu eta lehen zatia ordaintzen ez denean gertatzen denari dagokionez.

Azkenik, sozietateen gaineko zergaren arautegia aldatzen du informazioa herrialdeka xehatuta eman beharra garatzeko. Betebehar hori honako dekretu honek sartu zuen Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan: uztailaren 19ko 3/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, ELGAren baitan hartutako hainbat konpromiso foru zerga ordenamendura txertatzeko eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau betetzekoak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzea.

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, sozietatearen gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 71. artikuluko 2. idatz zatian ezartzen duena aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Autolikidazioaren zenbatekoa bi zatitan ordaindu ahal izango da inolako korritu edo errekar gurik ordaindu behar izan gabe:

a) Lehenengoa, zenbatekoaren ehuneko 60, autolikidazioa aurkezten denean.

b) Bigarrena, gainerako ehuneko 40a, autolikidazioa aurkeztu behar den urteko azaroaren 10a baino lehen.

Ordaintzeko prozedura hori erabili ahal izateko, autolikidazioa ezarritako epean aurkeztu behar da. Autolikidazio osagarrien sarrera ezin izango da zatitu aurreko paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera.

Lehen zatia ez bada ordaintzen ezarritako egunean, zor den kopuru osoa bilduko da beteazpen bidean, Arabako Zergen Foru Arau Orokorreko 165.1 b) eta 165.3 artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritik.”

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegian (2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 75. artikuluko 2. idatz zatiari r) letra gehitzen zaio; hona:

“ r) Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziei dagozkien atxikipenak, baldin eta akziodunaren edo partaidearen ohiko egoitza edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago.”

Bi. 76. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Halaber, behar den kopurua atxiki eta sartu behar da finantza aktiboak eskualdatzeko eragiketetan eta inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzen direnean eta harpidetza eskubideak eskualdatzen direnean, arautegi honetan ezartzen den bezala.”

Hiru. 77. artikuluko 1. idatz zatiko d) letra honela geratzen da:

“d) Inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta edo harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziak.”

Lau. 79. artikuluko 2. idatz zatiari h) letra gehitzen zaio; hona:

“h) Harpidetza eskubideak eskualdatzen direnean, entitate gordailuzaina eta, halakorik ezean, eskualdatzailearen kontura jarduten duen finantza bitartekaria edo eskualdaketa parte hartzen duen fede emaile publikoa.”

Bost. Aldatu egiten da 2. Paragrafoa eta 81. artikuluan paragrafo bat gehitzen da, hirugarrena: Hona hemen horiek aurrerantzean izango duten testua:

“2. Higigarrien kapitalaren etekinak direla eta, araudi honen 91. artikuluan xedatutakoa beteko da.

3. Talde inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetan izandako ondare irabaziak eta harpidetza eskubideak eskualdatzearen ondoriozko irabaziak direla eta, ei dagokienez, araudi honen 95. artikuluan xedatutakoa beteko da.”

Sei. Aldatu egiten da 95. Artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“95. artikulua. Atxiki beharraren sortzea.

Atxiki beharra sortuko da talde inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdatzea edo itzulketa eta harpidetza eskubideen eskualdatzea formalizatzen denean, edozein izanda ere kobrantzarako itundutako baldintzak.”

Zazpi. 95 bis artikulua gehitzen da; hona:

“95 bis artikulua. Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabazien gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziei 19ko atxikipena aplikatuko zaie.”

Zortzi. 101 bis artikulua gehitzen da; hona:

“101 bis artikulua. Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren gauzako ondare irabazien konturako sarrerak.

Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren gauzako ondare irabazien kontura egin beharreko sarrerak kalkulatzeko arautegi honetako 95 bis artikuluan ezartzen den ehuneko aplikatuko zaio haien merkatuko balioari.”

Hirugarrena. Aldatzea abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duena.

II. tituluko III. kapituluko bigarren atalean 21 bis artikulua sartzen da (2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondoreak):

“21 bis artikulua. Informazioa herrialdeka xehatuta eman beharra.

1. Zergaren Foru Arauko 43. artikuluko 10. idatz zatian informazioa eman beharraz ezartzen dena betetzeko aurkeztu beharreko aitortenaren eredia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu

Saileko foru diputatuaren agindu baten bitartez onartuko da. Agindu berean aitordpena nola aurkeztu behar den finkatuko da eta, behar izanez gero, betebeharra baliabide elektronikoaren bitartez zer kasutan eta nola bete behar den zehaztuko da.

2. Artikulu honetan aipatzen den informazioa zergaldia amaitzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da.”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; artikuluetan ezartzen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Aurrekoa gorabehera, foru dekretu honetako lehen xedapenean ezartzen dena pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren 2016ko ekitaldiko auto-likidazioetako sarrerei aplikatuko zaie lehenengoz.

Gasteiz, 2017ko otsailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ